

Eguraldi zoragarria asteburuan ospatutako 2. estropada akademikoan

2014/10/20

Urriak 18-19 bitartean ospatu da unibertsitate arteko 2. estropada akademikoa.

Ekitaldi borobila izan da, mintegi eta kirola batu dituen honek.

Larunbatean, Gipuzkoan errekek izan duten garrantziak eta arraunaren inguruko mintegiak izan genituen Donostiako Aquareuimean.

Igandean berriz, UPV/EHU, UD, Tecnum, MU eta UPPAren arteko estropadak izan ziren bi proben bitartez. Lehengoan 2 km inguruko jeitsiera bete behar zuten talde denek. Honen ostean, 500 m. tako sprinten bidezko eliminatoria jokatu zuten talde denek. Sailkapen orokorra egiteko, bi proben denborak batu eta eliminatorien irabazleen denborei 5' kendu ziren, horrela, mutiletan UPV/EHUko taldeak eta nesketan Tecnumeko taldeak irabazi zuten. Gure mutilak 5. eta MUren izenean lehiatu ziren neskek 2. sailkatu ziren.

Eskerrak antolaketan lagundu zuten guztiei, Ur Kirolak elkarteari, atzo emandako laguntzagatik, eta Arraun Lagunak elkarteari, MUren izenean lehiatu ziren neskek topatzeagatik.

Eskerrik asko ere MUko arraunlariei.

Informazio eta argazki gehiago:

<https://www.facebook.com/MondragonUnibertsitatekoKirolZerbitzua>

